

## PROIEKTUAREN AURKEZPENA

LAUAEME gara, ekintzaile gazteen enpresa bat. Zehazki, Amaia Dominguez, Alaia Garmendia, Maialen Gobantes, Ainhoa Patino eta Aimar Pintor gara.

Entretanimendurako modu berritzaile gisa, 2020Attack sortzea erabaki dugu, urte katastrofiko hau ikuspegi umoretsuago batetik gogoratzeko mahai-joko bat. 2020an egondako gertakarietan oinarrituta, erronkarik dibertigarrienak garatu ditugu, lagunekin jolasteko sortuak, nahiz eta beste giro batzuetan jolasteko aukera ematen duten. Gure ideia denboran eusteaz gain, belaunaldi berrientzako helburu ludiko zein didaktiko bat emateaz arduratu gara ere.

Azaldutakoa gauzatzeko, enpresa bat sortu dugu, zerotik hasita, horrek dakarren guztiarekin, balorezko-proposamenetik kostuen egituraraino. “Brainstorming” batekin hasi gara, denboran zehar kontserbatzen den produktu egokiena aurkitu arte, moda soil bat bezala igaro gabe. Gainera, merkatu-azterketa intentsibo baten ondoren, erabaki dugu jende gazteenak gozatu ahal izango duela jokoaz, gainerakoek ez bezala bizi izan baitute pandemia.

Bestalde, ekoizpenari dagokionez, jokoa erostea gu ekoiztea baino merkeagoa egiten zaigu, eta, beraz, hainbat enpresarekin harremanetan jarri gara hori gauzatzeko. Kontaktatu aurretik, gure target-a ikertu dugu produktu erakargarriago bat sortu ahal izateko, pastel-koloreak aplikatzea bezalako baliabide deigarriak erabiliz. Era berean, ekintzaileei zuzendutako beka jakin batzuk eskatu ditugu, enpresa bat sortzeak ekar litzakeen kostu guztiarekin lagutzeko; hala nola, produktuen produkzioa.

Gure bezeroekin harreman estuago bat izateko, gure kontu propioa sortu dugu gaur egun gazteek gehien erabiltzen dituzten plataformetan gure produktuaren publizitatea egiteko, bi sare sozial ezagunen kasuan bezala; Instagram eta TikTok. Horrez gain, online denda bat ere prestatu dugu, zeinen helburua bezeroek horren bidez erosketaren bat egin ondoren, azkar eta eroso entregatzea izango da. Horregatik, banaketa-enpresa batzuekin batera lan egitea pentsatu dugu.

Azkenik, gure enpresaren helburua negozioa hazkunde-faseraino eramatea da, gure produktuak merkatuan ezagunak eginez eta lehen irabaziak lortuz.